

3.10.1. UDAL-ALORRAK. BERDINTASUNA ETA LGTBI. BERDINTASUNA.

LAN-ILDO NAGUSIAK

III. BERDINTASUNERAKO PLANA (2016-2022)

Gobernantza eta berdintasunaren aldeko konpromiso politikoa

Emakumeak ahalduztzea, eta balio-aldaketa

Zainketa-lanak aitortzea, eta erantzukidetasuna

bizitzaren sostengua

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza hiri seguru batean

GOBERNANTZA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO KONPROMISO POLITIKOA

Iruñeko Udalaren egiazko konpromisoa bermatzea emakumeen berdintasunaren inguruan, berdintasun-printzipioa gobernagarritasun-printzipio bilakatuz.

LE1 EGITURAK ETA KOORDINAZIOA, XEDE HARTURIK GIDARITZA, ERABAKIAK HARTZEA ETA BERDINTASUNAREN ALDEKO KUDEAKETA BERMATZEA

Aurrekontua: 13.915,00euros

Jarduera nagusien laburpena:

- 1.- Berdintasun Arloa sendotzea, Berdintasun eta LGTBIko hiru teknikaririk eta udal-sail batek (hasieran berezia eta, ondoren, delegatua) osatua.
- 2.- Berdintasunerako III. Plana ezartzea. Horretarako, 2017an laguntza teknikoa kontratatatu zen 2017ko urteko plan operatiboaren koordinazioa, jarraipena eta balorazioa errazteko, Batzorde Politiko eta Teknikoaren bitartez, bai eta 2018ko Plan Operatiboaren proposamenean aurrera egiteko eta jarraipenerako excel tresna bat diseinatzeko ere (azken proiektu hori NBI-ren diru-laguntzen deialdira aurkeztu zen eta 14.000 euroko diru-laguntza jaso zuen).
- 3.- III. Planaren garapen eta segimendurako antolakuntza-eredu berria ezartzea.
- 4.- Arlo bakoitzarekin urteko koordinazioa egiteko proposamena diseinatzea.

5.- Beste udalekin eta berdintasun-erakundeekin informazioa elkartrukatzeko sareetan parte hartzea, posible egite aldera elkarrekin lan egitea, praktika ezberdinak alderatzea eta haietan hoberenak ikastea.

LE2 GAIKUNTZA POLITIKOA ETA TEKNIKOA:

Aurrekontua: 999,60 euro

Jarduera nagusien laburpena:

1.- Berdintasunari buruzko oinarritzko prestakuntza abian jartzea eta genero-ikuspegia sartzea Herriarren Partaidetzako eta Berdintasuneko Arloaren jardueran.

2.- Udalaren intranetean berdintasunaren arloko online sentsibilizazio-modulua sartzea.

3.- NBik tokiko protokoloak prestatzeko antolatutako lan-saioetan parte hartzea, bai eta Berdintasunaren aldeko Udalerrien Sarea sortzeko saioetan ere (Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak antolatu zuen).

4.- Planaren esparruan martxoaren 8aren eta azaroaren 25aren ospakizuna dela eta programatutako jardueri buruzko informazioa intranetean argitaratzea.

LE3 BERDINTASUN-PRINTZIPIOA OSATZEN DUTEN LAN- ETA ADMINISTRAZIO-PROZEDURAK

Aurrekontua: langile-gastuak

Jarduera nagusien laburpena:

1.- Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako jazarpenaren aurkako prebentzio- eta jarduketako protokoloa, 2013an onetsitakoan, gaztelaniaz eta euskaraz dago eskuragarri udal-webgunean.

2.- 2017an Iruñeko Udalaren ohiko informazio-bideak erabili dira: webgunea, prentsa-oharrak, prentsaurrekoak, iragarkiak eta publizitatea, posta elektronikoa, Ematic Zentroaren alertak (lehen Compañía Zentroa), sare sozialak eta Udalaren Youtubeko kanala. Horren osagarri, Iruñeko Udalak Berdintasunerako Planari buruz jarritako webgunean Ematic zentroaren (lehen, Compañía zentroa) ikastaroei eta Etxeko zereginei aurre egin eta bizirauteko ikastaroei buruzko informazioa dago.

3.- Udaltzaingoaren zaindariaren eguna zela eta, irailaren 29an Udaltzaingoak herriarren aurreko aitortza egin zion Berdintasuneko lantalde teknikoari.

ĒMAKUMEAK AHALDUNTZEA, ETA BALIO-ALDAKETA

Helburua: emakumeek eta gizonek gizarteratzeko prozesuetan barneratzen dituzten balio androzentrikoak gaitzitzea.

LE4 AUTONOMIA EKONOMIKOA

Aurrekontua: 4.500 euro

Jarduera nagusien laburpena:

1.- «Iruñeko emakume eta gizonen arteko desberdintasunak. 2007-2017ko analisi sozioekonomikoa».

IE5. PARTE-HARTZEA ETA ERAGIN POLITIKOA

Aurrekontua: 301.111 euro

Jarduera nagusien laburpena:

- 1.- Emakumearen Kontseiluaren bilerak: Emakumearen Kontseiluaren ohiko 4 bilera egin ziren.
- 2.- Diru-laguntzen deialdia: 20.000 euro berdintasuneko prestakuntza-ekintzetarako (1. modalitatea), eta 130.000 euro berdintasuneko proiektuetarako (2. modalitatea).
- 3.- Ematic zentroa (lehen Compañía zentroa).
- 4.- EMATIC zentroko programazioa.
- 5.- APUE Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskolaren programazioa.
- 6.- Lankidetzak-hitzarmena IPES Dokumentazio Zentroarekin.
- 7.- Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Eguneko programazioa.
- 8.- Familien Nazioarteko Eguna ospatzea, eta emakumeen egoitzetarako sarbiderik eza.
- 9.- Jardunbide egokien dekalogo bat (euskara, ingeles, frantses, galego eta katalanez) egin eta zabaltzea, diptiko eta posterreko formatuetan, eta ekainean hedabideekin egindako jardunaldian parte hartu zutenei eman zitzaizkien.
- 10.- Emakumeen Etxearekin lotutako parte-hartze prozesuaren hasi eta informazio-bilerak egin ziren.

LE6 HEZKUNTZA ETA HEZKIDETZA. ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESIKASTEA

Aurrekontua: 1.380 euro

Jarduera nagusien laburpena:

1.- Civivoxen Genero eta Berdintasuna (zinemako emakume heroiak) saila sortu zen, eta «Serializatuak» izeneko bi ikastaro eman ziren, non genero-azterketa hori telesailen gainean egi-ten zen (20 toki ikastaro bakoitzean).

ZAINKETA-LANAK AITORTZEA ETA ERANTZUKIDETASUNA, BIZITZAREN SOSTENGURAKO GAKO

Helburuak: eredu ekonomikoaren gainean berriz ere gogoeta egitea, bai eta denborak zein lekuak kudeatzeko eredu berriak proposatzea, zainketa-lanetan ari direnen bizi-baldintzak hobetzea, zainketa-lanei lotutako rolekin eta estereotipoekin haustea, eta hiriaren gainean gogoeta egitea ere parametro berri horietatik abiatuta, ekonomia feministaren ekarpenak kontuan hartuz.

IE11 EMAKUMEEN ETA ZAINKETA-LANEN ARTEKO LOTURA DESMUNTATZEA

Aurrekontua: 12.356 euro

Jarduera nagusien laburpena:

- 1.- Norberaren autonomia eta erantzukidetasuneko «Nik ere egin behar dut» lantegiaren bi edizio.
- 2.- «Sanferminetan bizirik irauteko kita» lantegia, Civivox Kondestablean.

IE12. HIRIAZ HAUSNARTZEA, BIZITZAREN SOSTENGURAKO EREDUA OINARRI HARTURIK

Aurrekontua: 300 euro

Jarduera nagusien laburpena:

- 1.- «Ahalduntzea gorpilen gainean» ikastaroaren 4 edizio, Hiri Ekologiako eta Mugikortasuneko Alorrarekin koordinaturik.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA HIRI SEGURU BATEAN

Helburua: Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako sentsibilizazioa, prebentzioa eta borroka egitea hiriko esparru guztietan.

IE13. HERRITARRAK PREBENITZEA ETA SENTSIBILIZATZEA EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN ARLOAN

Aurrekontua: 68.366,53 euro

Jarduera nagusien laburpena:

- 1.- Prostituzioari buruzko Gizarte Eztabaidaren I. Jardunaldiak.
- 2.- «Eraso sexistarik gabe, Iruña aske» estrategia.
- 3.- «Sexu eta ugalketa eskubideen aldeko borroka feminista» hitzaldia, irailaren 28an.
- 4.- Azaroak 25, Emakumeen kontrako Indarkeria Deuseztatzeko Nazioarteko Eguna ospatzea.
- 5.- Civivoxeko programazioa: «Berdintasunean heziz zinemarekin» programa.
- 6.- Autodefentsa feministako ikastaroak programatzea.

IE15. INDARKERIARI AURRE EGITEN DIOTEN EMAKUMEEN BIZI-BALDINTZAK HOBETZEA

Aurrekontua: 13.964,57 euro

Jarduera nagusien laburpena:

- 1.- «Emakumeak hirian izendatzea» taldea. Lezkairuko Emakume Aitzindarien parkearen inaugurazioa izan zen maiatzaren 5ean; haren 6 plazatan omenaldia egin zaie Iruñearen historian erreferente izan diren emakumeei: Rita Aginaga, Julia Fernández Zabaleta, Marija Jauregi, María Josefa Molero Mayo, María Luzea eta Francisca Sarasate Navascués.